

**I. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA****Bizkaiko Foru Aldundia****Euskara eta Kultura Saila**

**Euskara eta Kultura foru diputatuaren 1544/2019 FORU AGINDUA, maiatzaren 14koa; Bizkaiko Foru Aldundiko martxoaren 20ko 23/2019 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko ardura duen epaimahaiko kideak izendatzen dituena. Foru Dekretu horren bidez onetsi egiten dira 2019. urtean zehar Bizkaiko ikerketa arkeologiko eta paleontologikoak sustatzeko foru diru-laguntzetarako oinarri arautzaileak eta deialdia.**

Martxoaren 20ko 23/2019 Foru Dekretuaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko Lurralde Historikoan 2019. urtean zehar ikerketa arkeologiko eta paleontologikoak sustatzeko foru diru-laguntzen deialdi publikoa onetsi du (61 zk.ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2019ko martxoaren 28koa, osteguna).

Aipatutako foru dekretuaren 11. oinarrian ezartzen denez, aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, epaimahai kalifikatzaile bat eratuko da. Epaimahaikideak Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara eta Kulturako foru diputatuak izendatuko ditu, foru agindu bidez. Izendapen hori egiteko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 44. artikuluan ezarritakoa beteko da.

Azaldutakoa dela bide, artikulua horretan xedatutakoa aintzat hartuta eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauko 39.i eta 67.1 artikuluek, Foru Administrazioak ematen dituen diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauak, Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 6ko 22/2018 Foru Dekretuaren bitartez onartu zen Euskara eta Kultura Sailaren Egitura Organikoari buruzko Araudiak eta gainerako baterako xedapenek Euskara eta Kulturako Foru Saileko titularrari ematen dizkieten eskumenak kontuan harturik, eta izan daitezkeen abstentzio eta/edo errefusatzeeen ondorioetarako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23. eta 24. artikuluetan xedatutakoaren arabera, honako hau

**XEDATZEN DUT:**

*Lehenengoa:* Bizkaiko Foru Aldundiko martxoaren 20ko 23/2019 Foru Dekretuaren babesean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko arduraz gain, Euskara eta Kulturako foru diputatuari, behin betiko ebazpena eman dezan, ebazpen-proposamena egin eta aurkezteko ardura duen epaimahaiko kideak izendatzea. Honakoak izango dira, beraz, epaimahaikideak:

- Epaimahaiburu titularra:
  - Andoni Iturbe Amorebieta  
Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura zuzendari nagusia.
- Ordezko epaimahaiburua:
  - Ana María de Castro Rubalcaba  
Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara zuzendari nagusia.
- Epaimahaikide titularrak:
  - Zuriñe Antoñana Ozaeta  
Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko burua.
  - Mikel Unzueta Portilla  
BizkaikOA entitateko Arkeologiako Teknikaria.
  - Abdona Gil Abad  
Eusko Jaularitzaren Kultura Ondarearen zentroko arduraduna.



- Ordezko mahaikideak:
  - Roberto Laso Gutierrez Solana  
Bizkaiko Foru Aldundiko Esku-hartze Arkitektonikoaren Atalean monumentuen zaharberritzeaz arduratzen den arkitektoa.
  - Iñaki García Camino  
Bizkaiko Arkeologi Museoaren zuzendaria.
  - Milagros Esteban Delgado  
Arkeologiako doktorea (Deustuko unibertsitateko irakaslea).
- Idazkari titularra, botorik gabe:
  - Nahikari Gil Elorduy  
Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko administrazio orokorreko teknikaria.
- Ordezko idazkaria:
  - Jaione Larrea Nájera  
Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuko administrazio orokorreko teknikaria.

*Bigarrena:* Foru agindu hau interesdunei jakinaraztea, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Ondarearen Zerbitzuari helaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

#### **Azken Xedapen Bakarra. — Indarrean jartzea**

Honako foru-agindu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2019ko maiatzaren 14an.

Euskara eta Kulturako foru diputatua,  
LOREA BILBAO IBARRA